AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

490

1833/2011 EBAZPENA, abenduaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Olatz Olano Arancibia andrea Gipuzkoa Ekialde eskualdeko Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari zuzendari kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abuztuaren 27ko 159/2009 Ebazpenaren bidez, Gipuzkoa-Ekialde eskualdeko Ospitaleko Ekonomia eta Finantzako zuzendari izendatu zen Olatz Olano Arancibia andrea.

Zuzendaritza Nagusi honek ikusi ditu ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak, eta

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Olatz Olano Arancibia andrea Gipuzkoa Ekialde Eskualdeko Ekonomia eta Finantzako zuzendari zuzendari kargutik kentzea eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2011ko abenduaren 16tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gipuzkoa Ekialdea Eskualdeari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.